

**BERGARAKO  
HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN  
ILDO ESTRATEGIKOAK**

**BERGARAKO UDALA  
GAZTERIA ARLOA**

**2009/02/20**

# **AURKIBIDEA**

## **1. HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EGUNGO ERREALITEA**

- Haur, nerabe eta gazteei eragiten dieten gizarte, ekonomi eta kultur joerak
- Haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak
- Bergarako haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak

## **2. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN BILAKAERA**

- Gazteria kontzeptuaren bilakaera historikoa
- Gazteria arloan esku hartzeko moduen bilakaera historikoa

## **3. ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA HAUR ETA GAZTERIA POLITIKETAN**

- Administrazioak Haur eta Gazteria Politiketan esku-hartzeko justifikazioa
- Administrazio maila bakoitzaren esku-hartzea
- Bergarako Haur eta Gazteria Politikaren helburuak epe luzean
- Bergarako Haur eta Gazteria Politika garatzeko tresna eta baliabideak

## **4. BERGARAKO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN BILAKAERA HISTORIKOA ETA EGUNGO EGOERA**

## **5. BERGARAKO ESKU-HARTZE PROPOSAMENA**

## 1. HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EGUNGO EGOERA ERREALITATEA

- Haur, nerabe eta gazteei eragiten dieten gizarte, ekonomi eta kultur joerak

Gizartea denboran zehar aldatzen den errealitate bat da, eta gazteria gizartearen ispilua da. Duela 15 urteko haur eta gazteek eta gaur egungoek ez dituzte hainbeste ezaugarri komun, bizi diren gizartea etengabeko eraldatze prozesuaren ondorioz bilakatu egin delako. Beraz, gazteen beharrak ezagutu ahal izateko, gizartean emandako aldaketak aztertu beharko ditugu lehenik eta behin:

### *Gizarte joerak:*

Azken urteotan bizi itxaropenaren areagotzea eta jaiotze tasaren jeitsiera dela eta populazioa zahartzen ari da. Horrez gain migrazio mugimenduak ere badaude. Beraz, honek aldaketa demografikoak eragin ditu.

Aldaketa demografikoei familian emandako aldaketak gehitzen zaizkie. Emakumea lan merkatuan sartu da, lana eta familia-bizitza uztartzeko neurri gutxi jarri dira martxan, haurren eskubideak aitortu eta onartu dira eta gazteek familiaren etxeko egonaldia luzatzen dute (koltxoi ekonomikoa eta afektiboa).

Azkenik, familien egituretan ere aldaketak eman dira azken urteotan. Guraso bakarreko familiak, izatezko bikoteak, bigarren bateratzeak eta bakarrik bizi diren pertsonak gero eta ugariagoak dira.

### *Joera ekonomikoak:*

Lehenik eta behin globalizazioa aipatuko dugu. Lanari nazioarteko berrantolaketa eman zaio, ekoizpen sisteman iraultza gertatzen ari da, liberalismo ekonomikoa nagusi da eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen dira.

Globalizazioaz gain lan prekaritatearen areagotzeak baditu eraginak: aldi baterako kontratuak gero eta ugariagoak dira, ezkutuko ekonomia handitzen ari da eta kualifikatuta ez daudenak lan mundutik kanpo gelditzen dira.

Azkenik, gizartearen dualizazio bat ematen ari da: integratuak eta baztertuak banatuta daude eta batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak handitzen ari dira. Gazteak, emakumeak eta etorkinak dira ahulezi egoera larriago baten daudenak.

### *Kultur joerak:*

Kontsumismoa eta uniformizazio kulturala. Kultura kontsumo bihurtu da eta leku ezberdinetan produktu berdinak kontsumitzen dira. Identitate kulturala kontsumoaren bitartez lortzen da, plazerra bilatze horretan oinarritzen den sistema hedonista baten testuinguruan.

Kultur mestizaia: Euskal Herrian kultura "mosaikoa" dago, gizarte talde ezberdinetako adierazpena den kultura hiritarra: etorkinak, estatuko beste lurraldeetako pertsonak, eta abar... Horrek herriko eta komunitateko kulturaz zuzen-zuzeneko eragina du.

Gizabanakoaren afirmazioa eta ezberdinak izateko eskubidea aldarrikatzen da, diskriminazio positiboa onartuz.

Gizarte eragile tradizionalak (familia, hezkuntza arautua, ...) protagonismoa galdu dute, eta eragile berriak agertu dira (kalea, adin berekoen taldea, aisialdia, komunikazio hedabideak eta teknologi berriak, ...).

Gizartearen parte-hartzeko moduen jaitsiera eta aldaketa: sindikatuetan, alderdi politikoetan eta elkartegintzan parte-hartzea jaitsi da. Motibazioak aldatu dira (ikastea, erlazionatzea, eskarmentua lortzea, ...) eta gero eta puntualagoa da parte-hartzea, gizarteak gizabanakoengan jartzen duen exijentzia mailak parte-hartze horren egonkortasuna oztopatzen duelako.

- **Haur, nerabe eta gazteen egoera**

Faktore ezberdinak direla medio, gaztaroa luzatu egin da. Luzapen honen ondorioz, azpitalde edo adin-tarte bat baino gehiago nabarmendu dira eta gizarteak onartu ditu: haurrak, nerabeak eta gazteak. Jakina, adin-tarte bakoitzak ezaugarri, egoera eta behar bereziak ditu.

Bestalde, gaztarotik heldutasunera iristeko prozesua eta emantzipaziorako prozesua guztiontzat berdina izatetik anitza izatera pasa da, goian aipatutako gizartearen eraginaren ondorioz batik bat. Hortaz, adin bera duten bi nerabereren egoera eta beharrak ez dira zergatik berdinak izan behar.

Adin-tarte bakoitzarekiko hurbilpen bat egitea beharrezkoa da, baldin eta orokorrean batzuen eta besteen egoera eta beharrak aztertu nahi baditugu.

### *Haurren egoera*

Gaur egungo haurtzaroaren kontzepzioa ez da naturala edo emandakoa. Haurtzaroa aurkikuntza historiko eta sozial 'nahiko berria' da, zenbait diziplinarentzat lantzeke dagoen arloa eta haurtzaroa definitzeko eta haurtzaroko etapa ezberdinak definitzeko zailtasunak egon ohi dira.

Haurtzaroan, argi dagoena da beste adin tarteetan bezala aldaketak gertatzen ari direla. Haurren autonomia bizkortzen doala dirudi; eta, era berean, gero eta gehiago mantsotzen doa nerabeak helduen munduan sartzeko autonomia prozesua.

Gizarte mailan, haurren bizitzan 'kaleak' bizi espazio bezala duen garrantzia desagertzen ari da haurren espazioak etxea, eskola eta haurrei zuzendutako ekintzak egiten dituzten elkarteek eskainitako lokalak direlarik.

Haurra ez da gizarte eragile errekonozitua, ikustezina da gizartearen begietara. Egoera hori "haurraren ikustezintasuna" izenez ezagutzen dugu. Haurraren ikustezintasun horrek haurraren indibidualtasuna eta besteengatik bereiztua dena ez onartzea dakar. Gurasoen aldetik haurrak gehiegi babesteko joera ere badago; bestalde, horri lehen aipatutako isolamendu soziala gehitzen badiogu, haurren autonomia eta ardurak hartzearen garapenean eragin handia du. Haurren parte-hartzea haien bizitza kalitatearen hobekuntzarako elementu benetan garrantzitsua da garapen psikosozialari begira.

Haurren heziketa prozesuan eragile ezberdinek parte hartzen dute. Familiaz gain, eragile garrantzitsuenen artean eskola dugu. Eskola, gizartean positiboa eta aurrerapenaren seinale dena bezala ikusten den arren, batzuetan kontzeptualki kontrako lekuan kokatzen da. Gizarte mailan hezkuntza gurasoen eskumena bezala ulertzen da, baina guraso askok irakasleak izendatzen dituzte haurren ondoezen arduradun bezala. Eskumen delegazio horretan dirau egungo hainbat eztabaiden muinak.

Heziketa formalaz aparte, egun garrantzi nabarmena ematen zaio hezkuntza ez formalaren esparruari, baita haurren denbora libre eta aisiari ere. Eskolaratzeak eta eskolatik kanpoko beste ekintzen areagotzeak sarritan haurrek eguneroko jardunaldian esfortzu handia egitea suposatzen du, lanaldi baten pareko izan daitekeena, ordutegi zehatza, esfortzu intelektuala, ezagutzez jabetzeko epe konkretuak... Era berean, gurasoekin pasatzen duten denbora, eta, batez ere, aisiarako duten denbora murrizten da erabat.

Haurrek behar eta ezaugarri zehatzak dituzte, adin tarteen arabera ezberdinak direnak, eta kontuan hartu beharrekoak dira heldutasunerako bide horretan garapen egoki bat izatea bermatu nahi badugu.

### *Nerabeen egoera*

Gaztaroa luzatu denetik, nerabezaroa (12-17) ere agertu da berezko garai moduan, bere pisu propioarekin eta bere ezaugarri bereizgarriekin: haurrak jadanik ez direnak, baina oraindik gazteak ere ez; identitate bila dabiltzanak, baina oraindik emantzipatzeko bide luzea egin behar dutenak. Aldaketa garaia da: haurra izatetik gaztea izatera pasa; aldaketa fisikoak, psikologikoak eta mota askotakoak gertatzen zaizkie.

Garapenaren eta heziketaren aldetik, garrantzi handiko garaia da nerabezaroa, bertan identitatea definitzen delako, baloreak integratzen direlako eta sozializazioa bideratzen delako. Hain aro garrantzitsua izanik nerabeak "gidatu" egin behar dira, heldutasunera bitarteko prozesu horretan lagundu egin behar zaie. Familiatik at askatasunaren bila ateratzen dira nerabeak, errealitatean dauden eta bizitzan inportanteak izango diren zenbait aspektuekin lehenengo harremana posiblea eginez (kasu askotan lehenengo harreman hau haurtzaroan izaten da): elikadura, kontsumoa, drogen kontsumoa, harreman afektibo-sexualak, komunikazioa, telebista eta teknologi berrien erabilera eta abar. Helduen ikuspegitik guzti horiek arrisku kontsideratzen dira; baina, autonomia eta garapen pertsonalaren aldetik oso aberasgarria da frogatze momentu hori, gehienetan lagunartean eta aisian ematen dena. Nerabeentzako aisia da beren benetako lekua, bertan erabakiak hartu ditzaketelako helduen inposiziorik jasan gabe. Garai horretan berdinen arteko harremanak, lagunartekoak alegia, garrantzi handia hartzen dute nerabeen arteko kohesioa sendotu eta euren arteko autoidentitatea indartzen delarik.

Bai haur, bai nerabeen kasuan, hezkuntzarekiko ardura eta erantzukizuna eragile ezberdinena da, eta lan osagarri bat burutzeko saiakera ezinbestekoa ikusten da. Gurasoen hezitzaile funtzioetan hutsune bat detektatu egin da azkeneko urteotan, ziur aski familian emandako aipatutako aldaketek eraginda. Eskolak, bere aldetik, heziketan "espezializatua" dagoen erakundeak, informazioaren transmisioan oinarritu du bere zeregina eta baloreen transmisioan eta autonomia pertsonala garatzen laguntzera ez da iristen. Gauzak horrela, eskola eta familiatik kanpo gelditzen den esparrua esparru hezitzailea dela onartu beharra dago eta, nolabait, beste eragileen lanaren osagarri izatea nahi da. Administrazioaren lan

esparrua, beraz, heziketa prozesu horretan laguntzean datza. Alde batetik, nerabeek bizitzako zenbait alorri buruzko informazioa behar dute, eta, bestetik, pasibotasunetik parte-hartze aktiborako bidea ibili behar dute beren ekimen propioak aurrera egiteko. Azkenik, aisi hezitzailearen beharra ikusten da, hau da, beti ere haur eta nerabeen eskariak kontuan hartuta, astialdian antolatzen diren eskaintzak helburu hezitzailea izateko beharra: gaztetxoek oreka pertsonala lantzea, kritikotasuna bultzatzea, balioen hezkuntza indartzea eta sormena zein ekimen pertsonalari bide ematea.

Nerabeek era esplizituan eskatzen dutena (hautemandako beharrak) hauxe da: ondo pasatzea, modu librean hautatzea zer egin, nola eta noiz, eskaintza deigarria eta interesatea izatea, lagunartean gozatzea eta dibertitzea jarduerak egiten diren bitartean, denbora libre gehiago, lagunekin egoteko leku bat; eta, azkenik, arreta, entzutea eta komunikazioa berarentzako erreferenteak diren heldu "ereduekin" (gurasoak ez direnak). Gurasoek eskatzen dutena, aldiz, hau da: seme-alaben segurtasuna bermatzea, aisialdian egiten diren ekintzak "probetxuzkoak" izatea, aisia eskaintzaren bitartez "baloreak" lantzea, seme-alabek azaltzen dituzten jarrera arazoak zuzentzea.

### *Gazteen egoera*

Gaztaroa luzatu egin da (30-35 urtera arte) eta emantzipaziorako bide bakarra desagertu egin dela esan dezakegu; hau da, ezin dugu gazteriari buruz hitz egin, oso egoera ezberdinetan dauden gazteei buruz baizik. Hortaz, ibilbide indibidualizatuagoak aurkituko ditugu, bizi-ibilbide linealak desagertu egin direlako (ikasketak bukatu-- lana topatu -- etxebizitza lortu -- bizi-proiektu pertsonala aurrera eraman).

II Gazte Planak egiten duen analisiaren arabera<sup>1</sup>, gazteek beren sozializazioa eta gizarte integrazioa baldintzatzen duten alorretan (lana, hezkuntza, etxebizitza, osasuna eta aisia) behar bereziak dituzte: langabezia jaitsi da; eta, gazteei ematen zaien lanaren kalitatea eskasa da, aldi baterakoa eta gutxi ordaindutakoa baita (hiritar gazteen erdiaren hileko soldata ez da 600 eurotara iristen). Gainera, ezegonkortasuna eta behin-behinekotasuna dira nagusi. (Datu hauek oso zaharrak izan arren, 2002tik ez denez besterik argitaratu erreferentzia huts moduan azaltzen ditugu).

Etxebizitza lortzea zailago bihurtu da: erosteko prezioak oso altuak dira eta alokatzeko aukerak gutxi dira (2001eko Eustateko datuen arabera 25-29 urte arteko pertsonen %33,6 baino ez da emantzipatu). Etengabeko prestakuntza jasotzea ezinbestekoa da lan-mugikortasunak nagusitutako errealitate batean. Prestakuntza horrek alor ezberdinak ukitzen ditu: edukiak, gaitasunak, informazio-teknologia berriak, eleaniztasuna eta gizarte-gaitasunak. Gizartea balioen krisialdi batean murgilduta dago. Inmigrazioa eta gizarte-bazterkeria ere handitu egin dira.

Beren familiarekiko dependentzia ekonomikoa dute gazteek eta emantzipatu nahi baina ezin dutenen kopurua %70ekoa da (*Euskadiko Gazteriaren inguruko txostena, 2004*). Familiaren sostengua ez da berdina gazte guztientzat, eta familiaren egoera sozioekonomikoak eragin zuzena du gazteek independizatzeko eta gizartean integratzeko dituzten aukeretan, gazte horien ahultasun maila areagotuz.

---

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritzaren (2002), *EAEko II. Gazte Plana 2002-2005*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Esan bezala, emantzipaziorako ibilbideak aldatu dira (ez dira linealak) eta biderkatu: denboran zehar luzatzen dira, ibilbide zatituak dira, konplexuak, “yoyo” erakoak edo “hurrenez hurreneko hurbiltze” ibilbideak direlakoak dira. Emantzipazioa ez da progresio bat eta behin eta berriz gazteak saiatu behar dira lan munduan integratzen. Hurbiltze prozesu horretan, gazte guztiak ez dira leku berdinetik abiatzen. Azkeneko ikerketek<sup>2</sup> gazteen gizarte bazterketarako gune berria sortu dela ohartarazten digute: prestakuntza eta ikasketa gabezia sakonak dituzten, eta, aldi baterako, eskasak eta komunitatearekiko lotura-sortzaileak ez diren enpleguen artean mugitzen diren gazteek osatutako gunea.

Lanak gizarteratzeko eta gizarte onartua izateko bitarteko gisa daukan tradiziozko egitekoa haustek (lan merkatuetatik baztertuta egotea, diru sarrera eskasak eta prekariedade ekonomikoa, prestakuntzarekiko azpiokuazioa) gazteak urruntzera bultzatzen ditu; eta, horrela, bizitzaren beste alderdi batzuei ematen diete azkenean garrantzi handiagoa, hala nola, pertsonen arteko harremanei.. Etorkizunaren proiektua albo batean uzten dute, eta lan esparrutik kanpo, aisialdiaren balioa bihurtu da garrantzitsu, gazte identitateen eratzailer gisa lanaren balioak izandako zentraltasunaren kaltetan.

Gizartearen bilakaeraren ondorioz, asko dira Bergaratik irten eta berriz herrira bueltatzen ez direnak

- [Herriko haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak](#)

2008ko erroldako datuen arabera Bergaran 4124 haur, nerabe eta gazte bizi dira. Horietatik 1603 haurrak dira, 572 nerabeak eta 1949 gazteak. Joerak, egoera eta beharrak ezberdinak dira adin tarte hauetako bakoitzean.

#### [Bergarako haur, nerabe eta gazteen egoera](#)

##### [Haurren kasuan;](#)

Astean zehar Lehen hezkuntzan dauden haurrek eskolaz kanpo arratsaldeak erabat okupatuta dituzte: ingelesa, musika... ez dute jolaserako ia denborarik. Asteburuei dagokionez, larunbat goizetan askok partiduak dituzte, edo ikastaroren bat. Arratsaldeetan, mutilen kasuan batez ere, pilota partiduak izaten dituzte. Neskek denbora libre gehiago izaten dute eta askok Jarduneko aisialdi eskaintzan parte hartzen dute.

Topagune nagusiak ziburuak dauden guneak eta eskoletako patioak dira. LH 1,2 arte gurasoekin batera egoten dira, ziburuetan eta beste elkargune batzuetan. Familian zentro komertzialetara joateko ohitura ere areagotzen ari da. Batzuek Agorrosingo ludotekara gerturatzen dira.

Lagun taldeak 8 urte ingururekin hasten dira osatzen. Eskolaren arabekoak izaten dira eta neska eta mutilak ez dira elkarrekin ibiltzen. 10-11 urterekin finkatzen dira koadrilak, eta normalean eratu bezala jarraitzen dute. Seminarioko futbol zelaian asko elkartzen dira. 9 urtetik aurrera batzuk Jarduneko eskaintzan ere parte hartzen dute.

Opor garaian gurasoekin herritik kanpora joaten dira, eta batzuetan aste bukaera pasa ere kanpora joaten dira. Uztailean zehar udaleku irekietan ere parte hartzen dute.

---

<sup>2</sup> Gipuzkoako Foru Aldundia (2004), *Gazteei eta Bazterketari buruzko hausnarketa Gipuzkoa 2003. Gaztemira 6*. Donostia.

Auzoetako errealitatea bestelakoa da. Astean zehar eta aste bukaeretan ere, maiz, haur txiki- txikiak dira auzoetan daudenak. Eskolan daudenak gau partera arte ez dira herrigunetik itzultzen. Kuadrilak ere herrigunekoak dituzte, beraz bertara jaisten dira asteburuetan.

Auzoetako koadrilak ere izaten dituzte. Koadrilak ere ezberdin osatzen dira. Belaunaldi ezberdinetako haurrak eta neska eta mutilak ibiltzen dira elkarrekin. Joera galtzen ari den arren auzo batzuetan (Osintxu, Angiozar, Labegaraieta,...) auzoko kuadrila izaten dute. Gurasoekiko independentzia auzoetan herrigunean baino lehenago lortzen dute, plazan,... libre jolasten ibiltzen baitira.

#### Nerabeen kasuan,

Astean zehar egiten dutenak ere beste kutsu bat hartzen du; eskolaz kanpoko ekintzetan ez dute hainbeste denbora ematen eta lagunartean egoteak garrantzia hartzen du. Hala ere entrenamenduetan (mutilak batez ere), musikan eta akademietan denbora ematen dute.

Asteburuetan, kirolak eta lagunekin egotea berezko garrantzia izaten jarraitzen du, baina gurasoekin egoten diren denbora txikitzen doa lagunekin pasatzen dutenarekin alderatuta. Herrian bertan ibiltzen dira (lehen Elgoibarrera mugitzen ziren) eta lagun taldeetan zentro komertzialetara ere joaten dira, Gasteizera (Boulevard,...). Batzuek bertan egiten dute zita; zinera joan, bolera ibili, erosketak egin...

Topagune nagusiak helduen begiradatik kanpo geratzen direnak dira gero eta sarriago; Aranzadiko atzealdea, Ibaiondoko arkupeak... 12 urtetik gora lokal pribatuek ere garrantzia hartzen dute lagunekin egoteko leku propio bezala. Astegunean, eta asteburuetan egoten dira bertan, eta gainontzeko kuadrilekin ez dute apenas harremanik. 15-16 urterekin lokalaz gain tabernetan ere ibiltzen hasten dira. Gaztetxera ez dira asko gerturatzen.

Haurrekin gertatzen den bezala, nerabeen arteko harremanak bakoitzaren eskola zentroak markatzen ditu, baina joera hau adinak gora egin ahala gutxitzen joaten da. DBH hasieran, gatazka batzuk eta zenbait aldaketa gertatzen dira lagun taldeetan eta batez ere nesken artean. Mutilen kasuan, kirolaren inguruko kuadrilak ere osatzen dira, kasu hauetan ikastetxe ezberdinetakoak nahastuz.

Kontsumo joerak 14 urtetik gora hasten dira. Tabakoa eta kanabisa kontsumitzen dute eta aste bukaera eta jaiegunetan alkohola. Kontsumoa beste era batzuetan ere islatzen da, telefono mugikorraren erabilera esaterako. Diru iturri nagusia gurasoak dira eta askok diru kopuru handia manejatzen dute.

Parte hartzea ez da batere altua, asko kostatzen zaie antolatzen diren ekintzetan parte hartzea. Kuadrila ezberdinen artean harremana mantentzea zaila egiten zaie. Pasibotasuna nabaritzen dute eragile diferenteez. Beraiek ere onartzen dute kexu direla, baina dagoen urrian ere ez dutela parte hartzen.

#### Gazteak,

Gazteei dagokionez, adin honetatik aurrera gazteen eta gazte taldeen arteko harremanetan ikasitako eskolak ez du jadanik eraginik. Lagun taldeak osatuta daude. Koadrila askok lokal propioa daukate eta urte askotan mantentzen dute.

Joera nagusia sedentarisismoarena da. Aste bukaeran nahiz astegunetan taberna eta lokaletan egoten dira eta oso gutxi dira herri dinamizazioan inplikatu eta parte hartzeko joera dutenak, eta gutxi horiek ez dute erreleborik.

Gaztetxearen aukera dago, baina belaunaldietako kontua izaten da. Urte batzuetan erabili eta jende berria sartzen da. Dena den, gaur egun, nahiko "utzita" omen dago.

Uda partean, aste bukaera edo eguna kanpoan pasatzeko joera dute. Gau partean herrira itzultzen dira normalean. Kasu batzuetan Elgeta, Arrasate eta Durangoko aretoetara (Kafe Antzokiak...) eta inguruko herrietako jaietara ere mugitzen dira. Joera hau ere gutxitzen ari da. Gaueko autobus zerbitzu eskasiak ez die itzultzeko aukera askorik uzten, eta adin bat izan arte ezin dira goizeko autobusera arte gelditu. Adin batetik aurrera autoa dutenek mugikortasunean irabazten dute; baina, kontrolak eta bestelakoak direla eta, askotan, herrian geratzen dira.

Etxebizitza alokatzeko joerarik ez dago, oso etxebizitza gutxi daude alokairuan, eta daudenak oso garesti daude. Normalean etxebizitza erosi arte bizi dira gurasoen etxean.

### *Bergarako haur, nerabe eta gazteen beharrak*

2008an egindako aurrediagnostikoan jasotako datuen arabera haur, nerabe eta gazte eta gazte eragileen araberrako beharrak ondorengoak dira:

**Haur, nerabe eta gazteek** egiten dituzten eskaeren artean batzuk beraien interesekoak diren herriko baliabideen egokitzapenera zuzenduta daude; skate parkea handitu, mendi bizikletaz ibiltzeko gunea egokitu, futbol zelaiak baldintza onetan jarri, herriko iturriak konpondu, bidegorria luzatu, Osin eta Amoskibar egokitu...

Ekipamendu berriak ere guztiek eskatzen dituzte (kanpoko piztinak, padeleko pistak, bolera, auzoetan futboleko aritzeko guneak, zinema, zentro komertziala...), baina nerabegarotik aurrera aisiaz gain beste jarduera batzuekin loturiko eskaintzetarako ekipamenduak ere egokitu eta sortzea eskatzen dute; hala nola, gaztelekua sortu, entsegu lokalak egokitu eta arautegi bat sortu, "auditorio" bat sortu, erakusketak burutu ahal izateko gune bat izan,...

Beraien behar eta gustuetara egokitutako eskaintza ere guztien eskaria da, baina zein eskaintza eta hori gauzatzeko eran aldaketak daude; txikienekin buruhandiak jai eta aste bukaeretan, kalean jolas ezberdinak eta aste bukaeretan beraien adinarentzako kontzertuak nahi dituzte.

Nerabe eta gazteen artean ezberdinasun handirik ez dago; irteerak, musika festibalak, pelikulak plazan, 24 orduko futbito txapelketa, euskara sustatzeko helburuarekin kanpoko jendearekin elkartrukaketak, aste bukaeretako eskaintza, erakusketa, hitzaldiak... baina adin honetakoek aipatutako eskaintzan gazteen inplikazioa eta parte hartzea bultzatzea ere eskatzen dute eskaintzan bertan eta hauen antolakuntzan ere.

Nerabe batzuk lokaletan ibiltzen diren koadrilen arteko harremana sustatzeko jarduerak antolatu eta dinamizatzea ere proposatzen dute eta bai nerabe bai gazteek gazteria gaietan arduraduna den erreferente bat beharko litzatekeela diote; teknikari bat, gazte eta udalaren artean bitartekaria den pertsona bat.

Autobus zerbitzuak areagotzea ere lagun taldean ateratzen diren guztiek eskatzen dute, beste herrietara eta Bergarako auzoetara, batez ere gauean eta jai egunetan.

Emantzipatzeko asmotan dauden gazteek alokairu sozialak eta etxebizitza lortzeko laguntzak ere beharko liratekeela diote.

**Gurasoak** ados daude Haur, nerabe eta gazteen interesetara egokitutako eskaintza hezitzaile eta antolatu bat egon beharko litzatekeela aipatzerako orduan, hala nola, nerabeentzako espazioa bat, ikastaro eta tailer ezberdinak,... Baina uste dute gazteei ulertarazi behar zaiela eskatzearekin eta horren ondorioz egiten zaien eskaintzarekin batera, ardura hartze batek ere egon behar duela.

Egiten den eskaintzan beti ere haur, nerabe eta gazteen inplikazioa sustatu beharko litzatekeela uste dute eta era berean gazteen beharrak, proposamenak eta iritziak jasotzeko bideak zabaldu behar direla.

Haur, nerabe eta gazteek zioten bezala herriak eskaintzen dituen berezko baliabideen egokitzapena eta aprobetxamendua egon beharko lukeela diote (haurrek erabiltzen dituzten ziburuak, iturriak, biltzeko guneak.. egoera onean jartzea). Herrien arteko komunikazio sarea ere hobetu beharko litzatekeela aipatzen dute (autobusak,...).

Azkenik, auzo ezberdinetan eskaintza zabaltzea ere garrantzitsua dela diote, auzo bizitza ez galtzeko baliabideak jartzea hain zuzen ere.

**Gazte eragile guztiek** kointziditzen dute haur, nerabe eta gazteentzat aste bukaeretara begira hezitzaile den eskaintza programatu bat antolatu behar dela aipatzean, eta hauetariko gehienek nerabeentzat gazteleku edo gaztetxoko baten beharra ere aipatzen dute. Beste kasuetan bezala, eskaintza guztietan nerabe eta gazteen inplikazio maila areagotu behar dela diote.

Honekin batera behar bereziak dituzten haur eta gazteak planifikazio eta programazioetan kontuan izatea eta sentsibilizazio kanpainak egitea ere aipatu da.

Udalak gazteriari garrantzia gehiago ematearen beharra aipatzen dute batzuk; bere gazteria politikak definituz, udala eta gazteen arteko bitartekari lana egingo lukeen gazteria teknikari edo erreferente bat izanaz,... haur, nerabe eta gazteek udala hurrun ikusten dutenez, eta hauen parte hartzea ere sustatu asmoz udalak gazteengana gerturatzeko kanalak sortu beharko litzatekeela aipatzen dute batzuk (foroak, ...).

Bestalde, herrian dauden baliabideak areagotu (areto bat, zinema,...sortuz) eta daudenak ezagutzera eman eta irisgarritasuna bermatzea ere aipatu da; esaterako (eta betebeharrak gisa) Gazte Informazio Gunea baldintza onetan eta irisgarria den kokagune batean ezartzea. Baliabideei dagokienez, elkarriketatu guztiekin kointzidituz komunikazioa hobetu beharra aipatzen dute, garraio sarea hobetu hain zuzen.

Guztiek azaldu dute lokalen gaiarekiko kezka, batzuek bertako koadrilen arteko harremana sustatu beharko litzatekeela aipatzen dute.

Azkenik, gazteria mailan lan egiten duten eragile ezberdinen arteko koordinazio bideak sustatu beharko liratekeela aipatu da.

## **2. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN BILAKAERA**

Haur eta gazteria politikak, momentu historikoaren arabera eta tokiaren arabera aldatuz joan dira. Aldaketa honen ardatzetariko bat, gazteria kontzeptuak izan duen bilakaeran oinarritzen da.

### *Gazteria kontzeptuaren bilakaera.*

Gazteria ulertzeko era ezberdina da momentu historikoaren arabera, tokiaren arabera, begiratzen duenaren ikuspegiaren arabera... Gazteria kontzeptua ez da zurruna, aldatzen doan zerbait da. Gizartean ematen diren aldaketek modu zuzenean eragiten dute gazteengan. Aldaketa hauek ere baldintzatzen dute gazteek ezaugarri konkretu batzuk izatea, gazteak ikusteko modua...

Gazteria kontzeptua, gazteak gizartean integratzen diren moduaren arabera definitu, baldintzatu, eraldatu, irauli edo mantendu egiten da. Era berean, administrazioak gazteria ikusteko eta ulertzeko hartu duen pertzepzioaren arabera, gazteria politikak ere aldatuz joango dira.

### *Haur eta gazteria politikaren bilakaera*

Haur eta gazteria politika, aurretik finkatutako helburu batzuk lortzeko administrazioak haur eta gazteei zuenduta martxan jartzen duen prozedura multzoa da. Ekintzak, neurriak, praktika, laguntzak...

Gazteria kontzeptuarekin gertatu den moduan, haur eta gazteria politikak ere bilakaera izan dute. Bilakaera honetan, gazteriarekiko ikuspegiak eragiteaz gain, momentu historikoak ere zeresan handia izan du. Gazteria kontzeptua ulertzeko moduaren arabera, gazteekin lan egiteko moduak ere aldatu dira, hona hemen lan egiteko eredu batzuk:

## **3. ADMINISTRAZIOAREN PAPER A HAUR ETA GAZTERIA POLITIKETAN**

- **Administrazioak Haur eta Gazteria Politiketan esku-hartzeko justifikazioa**

Gaur egungo gizartean ematen ari diren aldaketa sozial sakonak direla eta, administrazio publikoaren aldetik haur, nerabe eta gazteen aldeko ekimenak lantzea behar beharrezkoa dela ikusten da, horretarako haur, nerabe eta gazteria politika afirmatibo nahiz integral, zeharkakoak nahiz sektorialak garatuz.

Udalak, toki mailako erakunde publiko den heinean herritar ororen behar eta interesei erantzuten dienez haur, nerabe eta gazteen eta hauekin zuzeneko harremana duten eragileen (guraso, elkarte,..) behar eta eskariei ere erantzuna eman behar die, beraien heziketa eta emantzipazio prozesuan lagungarri izango zaizkien aukerak izango dituztela bermatuz.

Udal haur, nerabe eta gazteria zerbitzuek sozializazio esparru garrantzitsuetan haur, nerabe eta gazte eta pertsona helduek elkarri eragiteko aukera ahalbidetzen dute; aisia edo informazio eta komunikazio esparruetan esaterako. Zerbitzu hauetara iristeko aukera izateak hainbat eskubide erabiltzea ahalbidetzen du, hala nola, informazio, heziketa edo herritarren parte hartze eskubideak. Era berean, eskubide hauen erabiltzeak, oinarrizkoak diren beste eskubide batzuetaz jabetzera garamatza (osasuna, intimitate-eskubidea,..) eta horrela bata bestearen segidan, haurtzarotik hiritartasun-aktiboa sustatuz.

- **Administrazio maila bakoitzaren esku-hartzea**

1979a geroztik *Eusko Jaurlaritzak* (autonomia erkidegoek) gazteria gaietan eskuduntzak bereganatu zituen. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza ere garai hartan sortu zen. EAEan bi Gazte Plan garatu dira, eta gaur egun Gazteria Legea sortzeko prozesuan daude. Gazte Planek gazteen emantzipazioa, gizarteratzea eta heldutasunerako pausuan laguntzea helburu dute eta ikuspuntu integral bat duten gazteria politika planteamenduan oinarritzen dira.

EAEan Eusko Jaurlaritzak Gazteria arloan dituen konpetentzia berberak ditu Nafarroako Gobernuak ere. Beraz, Nafarroaren kasuan, bertako gobernutik bideratzen da Gazteria.

Iparraldeko kasua oso bestelakoa da, Frantziako estatuaren menpe dagoen Gazteria arloak, ez dauka hegoaldekoarekin zerikusirik.

1983an Lurralde Historikoen Legea onartu eta gazteria arloen garapenean Lurralde Historikoak eskudunak zirela xedatu zen. Orduz geroztik, *Foru Aldundiak* gazteria arloak garatzeko baliabideez hornitu ziren.

Gipuzkoako kasuan, Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteria Zerbitzua hausnarketa prozesu batean sartu zen, "Gazteria Zerbitzuaren lehenengo plan estrategikoa 2001-2004" osatzera eraman zuena. Dokumentu honek diagnostiko bat abiapuntu izanik lurralde historikorako Gazteria Zerbitzuaren xedea, ikerpeketa, estrategia eta helburuak definitzen ditu. Plan honetan administrazio maila ezberdinen arteko elkarlana proposatzen da, Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteen premiei erantzun ahal izateko. Honela, Aldundia udalei baliabideak eskaintzen dizkien erakunde espezializatu bezala kontsideratzen da, udalek (herritarrekiko hurbilen dagoen administrazioa) era berean haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arreta zerbitzu bat eskaini dezaten. Beraz, gazteria politiketan erreferentziatzko marku bat eta udalei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen ditu aldundiak: informazioa, ikerketa eta dokumentazioa, formakuntza, aholkularitza eta baliabideen transferentzia zerbitzuak hain zuzen.

*Udaletxea* da biztanleriatik gertuen dagoen erakundea, baina erabaki operatibo eta ekintza gehienak bere gain dituen arren, ez ditu eskumen guztiak bere esku. Horregatik, haur, nerabe eta gazte nahiz gazte eragileei zuzendutako zerbitzu eta ekipamendu sarea garatzeko ardura dauka. Horretarako, Informazio, Aisia Hezitzaile, Emantzipazio eta Sustapen programetan oinarrituko da.

- **Bergarako Haur eta Gazteria Politikaren helburuak epe luzean**

Haur eta Gazteria politikaren *helburu nagusia haur, nerabe eta gazteen heziketa prozesua, heldutasunera iristeko prozesua eta emantzipazio prozesua erraztea da*, beti ere hiritartasun aktiboaren kontzeptutik abiatuz.



Haur, nerabe eta gazteen prozesu hau errazteko udalak lau programa estrukturalak osatutako arreta zerbitzua abian jarri beharko luke:

**Informazio programa:** Gazte informazioa haur, nerabe eta gazteen eskura jartzen den baliabide bat da, gizartean integrazio osoa lortu dezaten. Gazteen garapen osoan lehen mailako garrantzia duen baliabide honen bidez haur, nerabe eta gazteen arteko aukera berdintasuna bermatu behar da bizitzako une bakoitzean haur, nerabe eta gazteentzat planteatutako erronka desberdinen aurrean.

**Aisia hezitzailea programa:** Gozamen esperientzia ahalbidetzeaz gain, hezitzaileak diren helburu batzuk lortu nahi dituen eskaintza da, beti ere norbanakoak modu askean aukeratzen badu eta norbere denbora librean garatzen baldin badu.

**Sustapen programa:** Sustapena 0-29 adin tarteko gazteen adierazpena, ekimena, kritikotasuna eta parte-hartzea bultzatzea da. Haurrak, nerabeak eta gazteak berdinak ez direla ohartuta, sustapena adin taldearen arabera modu desberdinean landu beharko da.

**Emantzipazio programa:** Emantzipazio programaren helburua heziketa arautua, lana, etxebizitza eta, oro har, gaztarotik heldutasunerako igaroaldian lehen mailako garrantzia duten bizi-baldintzak hobetzea da.

Lau programak lantzerako orduan **genero berdintasuna, euskal identitatea, integrazioa eta justizia soziala** landu beharko ditugu zeharlerro gisa.

Epe luzean programa guzti hauek lantzea izan behar da Haur eta Gazteria Politikaren helburu nagusia.

Helburu nagusi honetara iristeko ezinbestekoa da Udalak honi guztiari erantzuteko behar duen egitura eta antolamendua hartzea. Gazteekin lan egiten duten eragileek (udala barne) lau programa estrukturalak garatzera bideratu behar dituzte beren esfortzuak, zerbitzuak eskainiz eta adin tarte bakoitzera (haurrak, nerabeak, gazteak) metodologia moldatuz.

- **Bergarako Haur, nerabe eta gazteria politikak garatzeko baliabideak eta tresnak**

#### a) Haur eta gazte ekipamenduak

Zerbitzu, programa eta ekintza ezberdinak garatzeko azpiegiturari deitzen zaio ekipamendua. Ekipamendua Haur eta Gazteria Politika garatzeko *ezinbesteko bitarteko* bat da eta, beraz, ekipamendua eraiki aurretik politika hori definitu beharko da. Haur eta Gazteria Politikaren helburuak finkatu ondoren zehaztuko dira ekipamenduarenak.

Ekipamendu bakoitza adin tarte bati zuzenduta egongo da eta helburu batzuk izango ditu. Era berean lau programa estrukturalak lantzeko orduan erabiltzen diren irizpideak eta metodologia zerbitzu bakoitzaren arabera moldatuko dira.

#### b) Egituraketa (Koordinazioaren ordeztu).

Zerbitzu-ekipamenduak eskaintzeaz gain, *lankidetzaren sistema iraunkorra sustatzea* da udalaren zereginetako bat; udal mailan, herritar gazteekin (0-30) lan egiten duten gainontzeko eragileekin eta gazteekin eurekin ere, bi ideia hauetan oinarritutako *sare-lan bat* egiteko:

- Jarraitasuna (adin-tarte guztiei zuzendutako zerbitzuak egotea).
- Koherentzia (zerbitzu horiek guztiak helburu berdinak lortzera bideratuta egon daitezen sustatzea).

**Udalaren barruko koordinazioa lantzeko** hiru esparru izango dira; *Haur eta Gazteria batzordea* eta *udal lan taldea*.

*Gazteekin lan egiteko gunea* Hemen gazteen iritziak jasoko dira eta beraiekin lan sistematikoa planteatuko da.

*Haur eta Gazteria batzordea* Udalean haur eta gazteria gaiak aztertuko dituen mahaia dugu. Printzipioz, alderdi politikoetako ordezkariak, batzordeburuak eta gazteria teknikariak hartuko lukete parte mahai horretan. Batzorde irekia da eta izaera informatzailea du.

Batzordearen ardurak izango dira, besteak beste: lehentasunak erabakitzea, aurrekontuak aurkeztea, plangintzak onartzea eta ebaluatzea, eta proposamenak tokiko gobernu batzarrera bideatzea.

*Udal Lan-taldea:* Haur eta Gazteria Politika Gazteria Sailean egiten dena baino zertxobait gehiago ere bada. Izan ere, udal osoaren gazteekiko konpromiso integrala da, gazteen bizi esparru guztietan eragina izan beharko lukeen konpromisoa alegia. Haur eta gazteria politika

egiteko beraz ezinbestekoa da hauen bizi baldintzetan eragina duten sail edo zerbitzuek (Hirigintza Saila, Kultura Saila, Ongizate Saila, Hezkuntza Saila...) era koordinatu batean lan egitea, gazteria sailaren dinamizazio eta lidergoean.

Udal kanpoko koordinazioan aldiz, maila ezberdinak izango ditugu:

*Gazteria eragileekin lankidetzaren sistema* : gazteria eragile (haur eta gazteria arloan zeresana duten eragile publiko nahiz pribatuak) guztien arteko elkarlan batean oinarrituko da.

*Bailara eta lurralde mailako koordinazioa*: eskualdeko eta lurraldeko gainontzeko gazteria teknikariek koordinazio bideak sortu beharko dira. Lurraldeko teknikariek koordinatzeko GazteSare baliabide informatikoa eta lurraldeko teknikarien arteko bilerak dira bideetako bi.

### c) Giza baliabideak

Maila teoriko batean hainbat profil desberdin bereiz daitezke haur eta gazteria arloko lanean:

*Haur eta gazteria teknikaria*: udal Gazteria Zerbitzuaren garapenaren arduraduna da. Horrez gain, gazteria eragileekin batera sare lanaren gaineko erantzulea da, baita gazteekin egiten den lanarena ere. Hauek dira bere *funtzio nagusiak*:

- Udalerriko haur, nerabe eta gazteen beharrak ezagutu eta jasotzea.
- Gazteria zerbitzuaren lana planifikatzea.
- Programa estrukturalak garatzeko estrategiak definitu eta ekintzak zehaztea.
- Zerbitzu eta ekipamenduen diseinua burutzea.
- Planifikazioa, kudeaketa eta ebaluazioaren gaineko ardura.
- Udal mailan nahiz herri mailan eragileen arteko koordinazioa bultzatzea.
- Beste administrazio batzuekin elkarlana sustatzea.
- Lan guztietan integrazioa, genero berdintasuna, euskal identitatea eta justizia soziala lantzea.

*Hezitzaileak*: Hezitzailea haur eta nerabeei zuzendutako ekipamenduetan eta bestelako zerbitzuetan kokatzen da. *Funtzio nagusiak* hauek dira:

- Haur eta nerabeen behar eta eskariak ezagutu eta jasotzea.
- Ekipamenduan garatu beharreko programak (informazio, aisia hezitzailea, sustapena eta emantzipazioa) planifikatu eta kudeatu.
- Zerbitzu eta programak ebaluatu.
- Lan guztietan honakoa landu: integrazioa, genero berdintasuna eta euskararen normalizazioa.
- Udalarekin koordinatu.
- Herriko beste eragile eta zerbitzuekin koordinatu.

*Gazte informatzailea*: Informatzailea da haur, nerabe eta gazteei zuzendutako informazio zerbitzuaren dinamizatzailea. Funtzioen artean izango ditu:

- Gazteen informazio beharrak ezagutzea.
- Beharrei erantzuteko informazioa egokitua prestatzea.
- Informazioa haur, nerabe eta gazteentzat eskuragarri jartzea.
- Nerabe eta gazteei euren kabuz informazioa lortzen irakastea.
- Udalarekin nahiz herriko beste eragile eta zerbitzuekin koordinatzea.
- Ebaluazioa burutzea.
- Integrazio eta genero berdintasuna landu eta euskararen normalizaziorako bideak sustatzea.

#### d) Baliabide ekonomikoak

Aurrekontua tokiko egoerara egokitu behar da, bertako errealitatea kontuan izanda. Hala ere gutxieneko baldintzak bermatu behar ditu:

- Langileen lan baldintza egokiak bermatu behar ditu.
- Espazio fisiko edo azpiegitura egokia izateko nahiko izan behar du.
- Landutako eta onartutako proposamenetik abiatutako planifikazioa aurrera eramateko behar diren baliabide ekonomikoak bermatu behar dira.

## 4. BERGARAKO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN BILAKAERA HISTORIKOA ETA EGUNGO EGOERA

Bergarako Udalak ez du ageriko haur eta gazteria politikarik izan orain arte. Gazteria arloa, Kultura arloaren barruan txertatuta egon da eta beti bigarren edo hirugarren maila batean egon izan da. Kulturak gazteria arloa "xurgatu" egin izan duela esan dezakegu.

Bergarako Udaleko hainbat departamentutatik beti nabarmendu da Gazteria arlo baten beharra (Gizarte Ongizaketatik, Kulturatik, Euskaratik...) baina orain arte ez zaio gaiari adarretatik heldu.

Gaur egungo Udal Gobernu taldeak berebiziko garrantzia eman dio Bergarako Udalean gazteria arloa garatzeari. Gauzak horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalarik Gazteria arloa errotzeko epe ertain-luzerako plangintza batean elkarrekin sartzeko eskatu zioenean, Udalak onartu egin zuen.

Plangintza honetan lehenengo pausoa orain arteko materiala batu eta elkarrizketa batzuekin baliatuz, plana ezartzea izan zen. Diagnostikorako Gizarte Ongizaketatik 2003ko "*Bergarako gazte eta nerabeen errealitatea ezagutzeko ikerketa*" kontuan hartu zen, Foru Aldundiarekin aurreko urteetan egindako datu trukaketa erabili zen (Gaztesaren oinarrituta). Proposamena Foru Aldundiak luzatu zion Udalarik. Plangintza hau alderdi politiko guztiekin kontrastatu zen eta hauen aportunoei berriz Foru Aldundira bideratu zen. Kontraste guztiak egin ostean, plangintza 2008ko uztailaren 28ko plenoan onartu zen.

Herri mailan badaude eragile batzuk Gazteekin eta Gazteentzat lan egiten dutenak. Aipatzekotan, Jardur Euskara Elkarte aipatuko genuke, eragile izateaz gain, gazteez osatutako herriko euskara elkarte delako. Jardunek haur eta gazteentzako ekintzak

antolatzen ditu eta horrez gain aisialdi zerbitzua ere martxan dauka, haur eta nerabeentzat. Hauekin lan egingo duten hezitzaileen prestakuntzaz ere arduratzen da.

Bergaran gazteentzako 90. hamarkada hasieratik gutxi gora behaera, ondorengo udal ekipamenduak daude:

-Ludotekak: Agorrosinen dago ludoteka nagusia. Osintxu auzoan ere badago beste bat. Ludotekak 4-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako jolaserako ekipamentuak dira.

-Gazte Informazio Gunea: bertan informatzaile bat dago eta nerabe, gazte zein helduek erabiltzen dute. Gehienbat oporretarako gidak kontsultatzeko eta txartel ezberdinak tramitzatzeko erabiltzen da.

-Goiko Estazioko Entsegu Lokala: herriko hainbat musika taldek erabiltzen du baliabide hau.

-Gaztetxea: udal ekipamendua izan arren, honen kudeaketa eta ardura guztia Gazte Asanbladak darama.

## **5. BERGARAKO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN EPE ERTAIN-LUZeko HELBURUAK**

Ondoren Bergarako Udaleko Haur eta Gazteria politikaren epe ertain-luzeko, helburu orokorrak eta lan ildoak zeintzuk diren zehazten da eta helburu horiek lortzeko udalak 2008 / 2009 urteetarako markatutako helburu zehatzak eta ekintzak.

2009 urte bukaeran ekintza hauek gauzatutakoan, balorazio bat egin eta helburu orokorrak lortzeko hurrengo urteko helburu zehatz eta ekintzak finkatuko dira.

### **1. Udalean, gazteria sailean, gazteria politika marku batean lan egingo dela bermatu.**

#### **1.1. Udalak herriko haur, nerabe eta gazteekin landu nahi den politikaren norabidea markatuko duen marku ideologikoa definitu.**

Helburu zehatza:

-Udalak, bere haur, nerabe eta gazte politiken ildo estrategikoak definitu.

Ekintzak:

-Ildo estrategikoak definitzen dituen dokumentua idatzi.

-Ildo estrategikoen dokumentua sozializatu: udal mailan eta herri mailan.

#### **1.2. Udalak haur, nerabe eta gazteei zuzendutako eskaintza bideratuko duen arlo propio eta estrukturatua izateko bideak sortu.**

Helburu zehatzak:

-Udal barruan Gazteria Sailaren garrantzia ikusarazi.

-Gazteria arloa garatzeko beharrezkoa den egitura zehatza sortu.

Ekintzak:

-Gazteria batzorde propioa sortu (batzorde informatzailea).

-Gazteria aurrekontu propioa sortu eta finkatu.

-Gazteria teknikari gisa diharduen hezkuntza teknikariaren formazio jarraia ahalbidetzeko urteko plangintza egin.  
-Gazteria teknikari gisa diharduen hezkuntza teknikariaren funtzioak jaso eta zehaztu.

## **2. Herriko haur, nerabe eta gazteen heziketa prozesua erraztuko duten “informazioa”, “aisia hezitzailea”, “sustapena” eta “emantzipazio programetan” oinarritutako eskaintza eta zerbitzuak garatu.**

### **2.1. Udal “Aisia hezitzailea” programa landu.**

#### Helburu zehatza:

-Nerabeentzako “aisia hezitzailea” eskaintza landu.

#### Ekintzak:

- Gazteleku proiektua landu.
- Gazteleku proiektuaren inguruan nerabeen iritzia jaso.
- Ekipamenduaren kokagunea adostu.
- Ekipamenduaren egokitzapen lanak burutu.
- Ekipamenduaren kudeaketa mota adostu eta beharrezko prozesua abian jarri.

### **2.2. Udal “informazio” programa landu.**

#### Helburu zehatza:

-Nerabe eta gazteen informazio beharretara egokitu eta irisgarritasuna bermatu.

#### Ekintzak:

- Gazte Informazio Gunearentzako kokagune berria aurkitu.
- GIG-ko proiektua berraztertu.

### **2.3. “Sustapen” programa landu.**

#### Helburu zehatzak:

- Herriko nerabe eta gazteen adierazpen musikala sustatzeko baliabide espazialak hobetu .
- Bergarako nerabe eta gazte guztiek entsegu lokalak erabiltzeko aukera izatea bermatu.

#### Ekintzak:

- Entsegu lokalen obren jarraipena egin.
- Nerabe eta gazteekin adostutako entsegu lokalen funtzionamenduaren inguruko arautegia sortu.

## **3. Haur, nerabe eta gazteek gizarteratzeko aukera berdinak izan ditzatela, ezberdinak direkekin bizi izaten ikasi dezatela eta euskal nortasuna bere egitea bermatu.**

### **3.1. Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzu nahiz jardueretan genero ikuspegia, hizkuntza normalkuntza eta elkarbizitza zeharlerro gisa landu.**

#### Helburu zehatzak:

- Zerbitzu eta ekipamenduetan genero berdintasuna bermatu.
- Hizkuntza normalkuntzarako pausuak landu.
- Jatorri eta egoera ezberdinetako haur, nerabe eta gazteek zerbitzu eta ekipamenduetara iristeko bideak sortu. Honekin batera genero berdintasuna, euskal identitatea, integrazioa eta justizia soziala landuz.

#### Ekintzak:

- Planifikazioan genero berdintasuna lantzeko burutuko diren ekintzak zehaztu.
- Hizkuntza normalizaziorako bideak erraztu.

-Jatorri eta egoera ezberdinetako haur, nerabe eta gazteen beharrak kontuan izan eta irisgarritasuna bermatu.

#### **4. Haur, nerabe eta gazteekin lotutako gaietan lanean diharduten eragile ezberdinek norabide eta irizpide komun batzuekin lan egitea sustatu.**

##### **4.1. Haur, nerabe eta gazteria gaietarako interesekoak izan daitezkeen koordinazio gune eta bide iraunkorrak sortu.**

###### Helburu zehatzak:

- Udal barruan teknikari ezberdinen artean haur, nerabe eta gazteei zuzendutako gaiak era koordinatu batean lantzea bultzatu.
- Herriko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako udal eskaintza (departamentu ezberdinetatik eskaintzen dena) helburu amankomun batzuei begira landu.

###### Ekintzak:

- Egungo gazteria batzordearen funtzionamendua aztertu.
- Egungo gazteria batzordearen funtzionamendua egokitu (Gazteekin eta eragileekin lan egiteko bitartekoak jarritz).

#### **5. Gazteria arloaren garapenean etengabeko hobekuntzarako sistemak eta lanabesak ezarri.**

##### **5.1. Haur eta gazteria arloan kudeaketa aurreratua sustatu: planifikazioa, difusioa eta ebaluazioa.**

###### Helburu zehatzak:

- Gazteria teknikariaren denbora eta baliabideak optimizatzeko baliabideak eskaini.
- Haur, nerabe eta gazteek Gazteria Sailean egiten diren ekintzen inguruan duten ezagupena areagotu.
- Ebaluazioaren bidez Gazteria Sailetik egiten diren ekintza ezberdinen hobekuntza bermatu.

###### Ekintzak:

- Planean agertzen diren ekintzen planifikazio zehatza landu.
- Ekintzen difusioa nola gauzatuko den zehaztu.
- Ekintzen ebaluazioa burutu.